

Familia bidezko hizkuntza transmisioa

Familia bidezko hizkuntza transmisioa ulertzeko, ikusi behar da gurasoen hizkuntza-gaitasunaren eta haurren lehenhizkuntzaren arteko lotura.

Gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera bikoteak hiru kategoriatan sailkatu ditugu:

- bi gurasoak euskaldun,
- guraso bat euskaldun, bestea erdaldun,
- bi gurasoak erdaldun.


Adinaren arabera gurasoak 3 kategoriatan banatu ditugu:

- guraso oro, adin guzietakoak , eta hauen artean
- guraso gazteagoak, 1995ez geroztik ezkonduak, seme-alabek 2-15 urte, eta
- hauen artean guraso gazteenak, 2001ez geroztik ezkonduak, seme-alabek 2-9 urte.

Haurren lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Gurasoak	Haurrak		
	Haur oro	2-15 urte	2-9 urte
<u>Bi gurasoak euskaldun</u>	(67.600)	(118)	(65)
Hurrek lehen h. euskara:	%68	%54	%59
euskara frantsesarekin	<u>%12</u>	<u>%33</u>	<u>%35</u>
(euskara nolazbait)	(%80)	(%87)	(%94)
frantsesa bakarrik	%20	%13	%6
<u>Guraso bat euskaldun</u>	(33.564)	(146)	(90)
Hurrek lehen h. euskara:	%1		
euskara frantsesarekin	%14	%56	%65
frantsesa bakarrik	%85	%44	%35
<u>Bi gurasoak erdaldun</u>	(137.136)	(614)	(331)
Hurrek lehen h. euskara:			
euskara frantsesarekin		%1	%1
frantsesa bakarrik	% 100	%99	%99
<u>Guraso oro</u>	(238.000)	(848)	(486)
Hurrek lehen h. euskara:	%20	%5	%6
euskara frantsesarekin	%5	%11	%14
frantsesa bakarrik	%75	%84	%80

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.



Egilea: Titto Betbeder, 2012.

1. Bi gurasoak euskaldun direlarik,

- orokorki %80 haurren lehen hizkuntza euskara da (%68rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %20rentzat;
- guraso gazteagoekin (1995), 2-15 urteko haurren %87en lehen hizkuntza euskara da (%54entzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %44rentzat;
- guraso gazteenekin (2001), 2-9 urteko haurren %94en lehen hizkuntza euskara da (%59rentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %6rentzat.

2. Guraso bat euskaldun, bestea erdaldun,

- orokorki, %15 haurren lehen hizkuntza euskara zen frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %85entzat;
- guraso gazteagoekin (1996), %56 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %44rentzat;
- guraso gazteenekin (2002), %65 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %35rentzat.

Laginaren aldetik multzo gazteenaren emaitzak dudazkoak badira ere, itxuraz, familia bidezko transmisioa hobetuz doa :

- bikote euskaldunekin, haur euskaldunak %80, %87eta %94 dira.
- bai eta ere euskaldun-erdaldun bikoteekin, haur elebidunak %15, %56 eta %65.

Ene ustez emaitza hau da hoberena euskaraen geroari begira.

Familia bidezko transmisioa beste transmisio bideekin uztartzen da, kate oso bat indarrean ezarriz, etxean, haurtzaindegian, eskolan.

Euskararen Erakunde Publikoaren eragina zeharkakoa izan da : alde batetik proiektu deialdien bidez, guraso elkarteek parte hartzen dute eskola inguruan antolatzen diren euskararen erabiltzeko ekintzetan. Ondorioz eskola eta familien arteko sinergia motibazio nagusi bat bilakatu da euskara jarraikarazteko.

Bestalde, hizkuntza teknikariek, Herri Elkargoen onarpenarekin, sentipenak ekintzak eramaten dituzte aita-ama berriekin eta gurasogaiekin : informazioa, opari pedagogikoak eta beste.

Erramun Bachoc, 2012-12-10, baxok@wanadoo.fr